



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

UDAL PLENOA
Bilkura ezohikoa

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/07/22	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 18:25	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:

Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE ETA
IRTEERAK:

Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU) zinegotzia 18:08an sartu da bilkura gelara, 5. puntuaren aurkezpenean.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon. Hasiera emango diogu plenoari.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko uztailaren 1ean egindako bilkuraren akta onartu du.

2.- INGURUMEN ESKOLAKO LURZATI BAT ARRETXENA BASERRIKO JABETZARI INORENTZEA (2013HENK0001).

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“IKUSIRIK Arantzazu Murgoitio Azcoaga andreak Udala auzoan kokaturik dagoen Arretxena baserriaren jabetza soila daukala, usufuktu edo gozamina bere ama Lucia Azcoaga Madinabeitia andreak duelarik.

Finka hori 24263 zenbakiarekin inskribatuta dago Bergarako Jabegoaren Erregistroan.

IKUSIRIK Arretxena baserriaren lursailak Ingurumen Eskolaren lursailarekin muga egiten duela.

Azken horren titularra Arrasateko Udala da. Finka hori 24262 zenbakiarekin inskribatuta dago Bergarako Jabegoaren Erregistroan.

IKUSIRIK Arantzazu Murgoitio andreak idatzi bat aurkeztu duela udaletxean adieraziz Arretxena baserriaren lurzatiak Ingurumen Eskolakoarekin duen muga egokitzea interesatzen zaiola, haren erabilgarritasuna hobetzearren.

KONTUTAN IZANIK Arantzazu Murgoitio andreak interesa daukala Ingurumen Eskolaren lurzati 29 m² eskuratzeko, haren mugakide den Arretxena baserriari atxikitze helburuarekin, eta Arrasateko Udalak ez daukala eragozpenik aipaturiko azalera inorentzeko.

Hirigintza batzordeak hauxe proposatu du:

I.- Udala auzoko Ingurumen Eskolaren lursailaren zati bat, 29 m²koa, Arretxena baserriko jabe inorentzeko, Udalaren eta Arantzazu Murgoitio Azcoaga andreak arteko hitzarmena sinatzea ontzat ematea, jarraian azaltzen diren hitzarkinen arabera:

ÍLEHENENGOA.- Arrasateko Udalak Arantzazu Murgoitio Azcoagari salduko dio Bergarako Jabegoaren Erregistroan 24262 zenbakiarekin inskribatuta dagoen ondasunaren honoko zati hau:

Forma irregularra duen 29 m²ko lurzatia. Bere mugak honokoak dira: ekialdean eta iparraldean, Arretxena baserriaren lurzorua, hegoaldean eta mendebaldean zatitzen den lurzati matrizea (Ingurumen Eskola).



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

Lurzati hori honekin batera eranskin bezala doan planoan islatu da.

BIGARRENA.- *Salmentaren prezioa 345,39 Eurokoa izango da.*

Prezioa kalkulatzeko Udalako Plan Berezian jasotako balioak erabili dira.

Prezioa ordainduko da, Arrasateko Udalak Euskadiko Kutxan duen 3035 0001 52 0010900008 zenbakiko kontu korrontean sarrera eginez.

HIRUGARRENA.- *Salmenta gauzatzeko eskritura publikoa sinatu ala ez erosleak erabakiko du. Hala erabakiz gero saltzaileak (hau da, Arrasateko Udalak), aipatu eskritura publikoa sinatzeko betebeharra hartzen du bere gain.*

LAUGARRENA.- *Arantzazu Murgoitio Azcoagak, 24263 finka zenbakia duen Arretxena baserriari atxekitu beharko dio, derrigorrez, erositako zatia.*

BOSTGARRENA.- *Alde biek, bai Arantzazu Murgoitio Azcoagak eta bai Udalak bere gain hartuko dituzte legez egokitzen zaizkien zergak, erosle eta saltzaile bezala, hurrenez hurren.*

Horrez gain, Arantzazu Murgoitio Azcoagaren kontura izango dira eskritura publikoei eta Jabetza Erregistroan inskribatzeari dagozkion gastu guztiak, bai erosketari dagozkionak, bai Udalak bere lurzatiatik 29 m² zatitu edo segregatzeari dagozkionak, eta bai erositako zatia Arretxena baserriaren finkari atxekitzeari dagozkionak ere.+

II.- *Ahalmena ematea Alkate Lehendakariari edo legez ordezkatzan duen Alkateordeari aipatutako hitzarmena sinatzeko eta bertan adostutakoa gauzatzeko egin beharreko izapideak burutzeko.”*

3.- ZERRAJERA ETA UARCAPEKO LOKALEN ENKANTEA: EVA ARACAMAK 29.LOKALAREN ESLEIPENARI UKO EGITEA (2012HENK0001).

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Plenoak, 2014ko ekainaren 3an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki zuen Eva Maria Aracama Aloa andreari esleitzea Uarkapeko 29. zenbakidun lokala (Uarkape kalea 12-etxabearen kokatzen dena) inorentzea, 10.000 €tan, zergak sartu gabe, eta inorentzea arautzen duen Klausula Administratibo Partikularren Orriak dioenaren arabera.

2014ko ekainaren 17an Eva Maria Aracama Aloa andreak idatzi bat aurkeztu du adieraziz Uarkapeko 29. zenbakidun lokalaren esleipenari uko egiten diola.

Aurrekoa ikusirik eta jarraian azaltzen dena kontutan izanik:

1.- Enkantean parte hartzeko, lizitatzailak Uarkapeko 29. zenbakidun lokalari zegokion 297,18 € behin-behineko bermea jarri zuen.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

2.- Inorentzea arautzen duen Klausula Administratibo Partikularren Orriaren 5. atalak, behin behineko bermeei ingurukoa, honakoa dio:

“Behin-behineko berme hori da lizitatuzaileek aurkeztutako proposamenak mantentzeko adjudikatu arte eta adjudikaziodunaren proposamenak mantentzeko kontratua sinatu arte, eta kenduko zaie adjudikatu aurretik arrazoirik gabe proposamena kentzen duten lizitatuzaileei, bai eta behin betiko bermea jarritzen ez duen adjudikaziodunari ere edo, berari egotzi dakizkiokeen kausengatik, kontratua sinatzerik ez dagoenean epean, eta kasu horietan exekutatu egingo da bermea.”

3.- Aurrekoaren arabera, aipatutako lokalaren esleipenaren uko egiteak behin-behineko bermea galtzea ekarriko du.

Hauxe proposatu du Hirigintza batzordeak:

I.- Uarkapeko 29. zenbakidun lokala (Uarkape kalea 12-etxabea kokatzen dena) inorentzeko esleipenari uko eginez horren adjudikazioduna izan zen Eva Maria Aracama Aloa andreak aurkeztutako idatzia aurkeztutzat ematea.

II.- Eva Maria Aracama Aloa andreaki ohartaraztea, inorentzea arautzen duen Klausula Administratibo Partikularren Orriaren 5. atalak, behin behineko bermeei ingurukoa, dioenaren arabera, aipatutako lokalaren esleipenaren uko egiteak 297,18 €ko behin-behineko bermea galtzea dakarrela.”

4.- INICIO DE EXPEDIENTE EXPROPIATORIO PARA LA OBTENCIÓN DE BIENES Y DERECHOS NECESARIOS PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE SAN JOSEPE KALEA È FASE 1A-(2014HDJA0001).

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprueba y eleva a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Urbanismo:

“RESULTANDO que se ha aprobado definitivamente el “PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE SAN JOSEPE KALEA”, promovido por el Ayuntamiento de Arrasate, y cuyo objetivo principal es mejorar el tráfico rodado, el tráfico peatonal y los espacios libres del barrio aumentando así la calidad de vida de sus habitantes.

A su vez se mejoran las redes de servicios del barrio. Por un lado, se renueva la red de abastecimiento de agua y se disponen hidrantes cumpliendo con la normativa vigente. Se renueva la red de saneamiento de aguas pluviales. Por otra parte, se soterran tanto las líneas eléctricas como de teléfono actualmente en aéreo y en fachada, y se renueva la red de alumbrado. Por último, se define la red de comunicaciones del Ayuntamiento.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

RESULTANDO que está previsto que dicho Proyecto de Reurbanización sea ejecutado por fases, siendo la primera en abordar –de forma inmediata- la contemplada en la separata de proyecto denominada FASE 1A.

La citada fase 1A va desde la zona donde la calle San Josepe se bifurca y comienza la calle San Andres (al par de la antigua cantera) hasta la zona de escaleras existentes que conectan las 2 calles, justo en el comienzo del parque intermedio.

Las obras proyectadas tienen por objeto, concretamente, dar solución a las siguientes cuestiones:

- En la calle San Josepe al inicio de este tramo la ausencia de acera provoca que los viandantes (sobre todo carros de niños o de compras) invadan el vial rodado, con la peligrosidad que ello conlleva debido a la escasa visibilidad de la zona. Así mismo la ausencia de elementos de contención para vehículos podría provocar la caída a distinto nivel de vehículos rodado.

- Por otra parte nace San Andrés Kalea, que discurre inicialmente casi sin pendiente lo que provoca que exista un talud entre ambas calles e incluso muros de mampostería y escollera más adelante.

- Entre ambas calles existe un parque con un itinerario peatonal con una pavimentación no muy adecuada (confeccionado en piedra labrada), que se conecta con las viviendas de San Josepe en la zona superior a través de unas escaleras que no cumplen criterios de accesibilidad, y en su zona baja se conecta con las dos calles a través de una escalera que incumple igualmente estos criterios.

- Las redes de servicios actuales (abastecimiento, saneamiento, energía, alumbrado, telecomunicaciones, gas, etc.) precisan de diversas actuaciones, que conllevan en algunos casos su renovación completa, y en otros la realización de mejoras.

CONSIDERANDO que para la ejecución de las citadas obras contempladas en la FASE 1A es estrictamente indispensable ocupar bienes de terceros.

VISTOS los artículos 9 al 21 de la Ley de Expropiación Forzosa, 15 y siguientes de su Reglamento y demás disposiciones de pertinente aplicación.

Esta Comisión de Urbanismo propone al Pleno de la Corporación lo siguiente:

I.- Dar inicio al expediente expropiatorio para la obtención de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de las obras contempladas en el “PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE SAN JOSEPE KALEA -FASE 1A-”.

A tales efectos, se tendrá por declarada la utilidad pública del objeto o fin de la expropiación, esto es, la ejecución de las obras de mejora del tráfico rodado, del tráfico peatonal y de los espacios libres del citado barrio, así como de las redes de servicios del mismo (abastecimiento de agua, saneamiento de aguas pluviales, energía eléctrica, alumbrado, teléfono y comunicaciones), aumentando así la calidad de vida de sus habitantes.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

Asimismo, se tendrá por declarada la necesidad de ocupación de los bienes que más adelante se señalarán, a los fines antedichos.

II.- Formular la relación concreta e individualizada de los bienes a expropiar, cuya descripción pormenorizada figura en el Anexo obrante en el expediente, así como de los titulares de los mismos, cuya tabla resumen se recoge a continuación:

RELACION DE BIENES Y DERECHOS AFECTADOS POR EL EXPEDIENTE EXPROPIATORIO PARA LA OBTENCIÓN DE BIENES AFECTADOS POR EL Í PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE SAN JOSEPE KALEA -FASE 1A-Í :

nº	Propietario	Dirección	Superficie afectada m2			Aprovechamiento	Datos del Catastro	
			expropiación	Ocupación temporal	servidumbre		polígono	parcela
1	PILAR ERAÑA ATXA	ZERRAJERA 4 - 4ºC	25,590	-	-	ALMACEN AL AIRE LIBRE	-	4167071
2	PILAR ERAÑA ATXA	ZERRAJERA 4 - 4ºC	287,720	-	-	MONTE BAJO	01	070b
3	HRDOS. DOMINGA EROSTARBE CORTAZAR CELESTINO MANCEBO MIGUELEZ JON TXOMIN EROSTARBE GURIDI JOSE M. RUIZ GARRIDO	SAN JOSEPE KALEA Nº9	151,850			MONTE BAJO	01	077

Así como cuantos derechos de arrendamientos o cualesquiera otros que pudieran existir sobre los bienes que se acaban de referenciar y que no constaran en las dependencias municipales.

III.- Declarar, de conformidad con lo establecido en el artículo 178-2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, urgente la ocupación por parte del Ayuntamiento de Arrasate, a efectos de expropiación forzosa (artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa), de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de las obras de la FASE 1A del Proyecto de Reurbanización de San Josepe Kalea, que se encuentran concretados e individualizados en la relación formulada, arriba referenciada.

Dicha declaración de urgencia se halla fundamentada en que existe obligada necesidad en abordar –cuanto antes- las obras de la citada FASE 1A al objeto de dar solución a las deficiencias actualmente existentes en la zona, las cuales han sido más arriba descritas

IV.- Publicar el presente acuerdo en un diario de los de mayor difusión del Territorio Histórico, en el Boletín Oficial del Territorio Histórico y en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento, en los términos y a los efectos legalmente establecidos.

V.- Abrir, con carácter previo a proceder a la publicación señalada en el apartado precedente, un plazo, **hasta el 30 septiembre de 2014**, a fin de alcanzar acuerdos con los interesados para la ocupación de los bienes y derechos afectados por el proyecto de referencia, e invitarles a que, dentro de dicho plazo, y antes del 11 de septiembre de 2014, formulen las propuestas de precio que estimen convenientes para propiciar la ocupación por mutuo acuerdo.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

VI.- Facultar al Alcaldede-Presidente, o Teniente de Alcalde que legalmente le sustituya, para la realización de cuantas gestiones y actuaciones resulten necesarias para dicha ocupación por mutuo acuerdo, así como para que, una vez transcurrido el plazo arriba indicado, lleve a cabo las actuaciones precisas para proseguir con la tramitación del expediente expiatorio iniciado y culminar dicha tramitación.”

5.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA PROIEKTUAK IDATZI ETA URBANIZAZIO OBRAK EXEKUTATZEKO UDAL ORDENANTZARI (2013HORD0002).

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“PROIEKTUAK IDATZI ETA URBANIZAZIO OBRAK EXEKUTATZEKO UDAL ORDENANTZA”ren agiria aurkeztu da.

Ordenantza horren helburua da hiritartze eskuharmenen hainbat alderdi arautzea, besteak beste, proiektuari buruzkoak, exekuzio materialaren ingurukoak, obren emateari dagozkionak eta hiritartzearen zerbitzuen azpiegiturei buruzkoak.

Halaber, Ordenantzaren xedea udalerrri osoan hiritartze irizpideak finkatzea da, eta baita diseinuaren inguruko zehetasunak eta parametroak ezartzea ere, bai zerbitzu azpiegiturei bai berezko hiri elementuei dagozkienez.

Ordenantzaren aplikazio-eremuan hiritartze publikoaren inguruko proiektu eta obra guztiak sartuko dira, hiri mailan (lur hiritarra eta lur hiritargarría) burutzen direnak, kudeatze era edo sustatzailearen figura edonolakoa dela ere. Beraz, nahitaez bete beharko da jarraian azaltzen diren kasuetan:

- Udalak sustaturiko hiritartze berrietan.
- Sustatzaile pribatuek (bizilagunen elkargoak, hornidura elkarteak, eta abar.) gauzatutako hiritartzeetan, Udalaren eskuetan utzi behar direnak eta Udalak bere gain hartu behar dituenak.
- Erabilera publikoko zormena duten lursail pribatuetan.
- Erabilera publikoko zormena duten berriritartze edo kontsolidatuta dauden eremu publiko eta pribatuko birjapenetan.

Aurkeztu den agiria aztertu ondoren eta ikusirik apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa, toki araubideko arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

Hirigintza batzordeak akordio hau hartu dezan proposatu dio Udalbatzarrari:

I.- Onartzea hasiera batean “PROIEKTUAK IDATZI ETA URBANIZAZIO OBRAK EXEKUTATZEKO UDAL ORDENANTZA”ren agiria.(Ikus I. eranskina)

II.- Jendaurrean erakustea aipatutako Ordenantza hori, HOGEITA HAMAR egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen duten egunetik hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

7/1985 Legearen 49. artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da Ordenantza.”

6.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA UDAL ORDENANTZAREN 1.ALDAKETA PUNTUALA, ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUA ARAUTZEN DUENA (2014HORD0003).

Idazkariak Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena irakurri du:

“2014ko ekainaren 3an egindako bilkuran Udal Plenoak erabaki zuen “ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZAREN 1GO ALDAKETA PUNTUALA” hasiera batean ontzat ematea eta jendaurrean jartzea.

Ordenantzaren aldaketaren helburua honakoa da:

1.- TAO gune berri bat mugatzea, erdialdean, O Gunea – 0.1. azpigunea, garai batean Ferixalekuko ikastolako jolastokia zen gunea hartzen duena, eta Amaia antzokiaren eta Uarkape frontoiaren arteko gunea dena.

2.- Beste gai batzuen artean, ohiko egoiliar txartelak emateko kasuak handitzea, ibilgailu baten jabe diren eta elbarritasun motaren bat duten pertsonentzat, nahiz eta ez eduki gida baimenik.

3.- Azkenik, salaketak deuseztatzeko ezarritako epea ere handitzea, eta oraingo 24 orduetik 48 ordura pasatzea.

Bestalde, aldaketak artikulua hauei eragiten die:

4. Artikulua.- Mugatutako Guneak eta Azpiguneak.

6. Artikulua.- TAO aplikatzeko egutegia eta ordutegia.

16. Artikulua.- Egoiliarak (ohikoak).

20. Artikulua.- Egoiliar txartela lortzea.

26. Artikulua.- Salaketak deuseztatzea.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

Aldaketa Puntualaren jendaurreko izapidetan eta hartarako emandako epean jarraian azaltzen diren alegazio idatziak aurkeztu dira:

1.- Sokoia Azcarate Arregui andreak aurkeztu duena, bertan honako hau jasotzen dena:

- Bera Foruen enparantza, 6 (Lauaxeta etxea) – 1Dn dagoen etxebizitzan bizi da., Lagun Aro ondoan. Gertu dituen aparkaleku guztiak TAO dira. Bertakoen txartela ateratzera joan denean esan diote bera bizi den kalean ez dagoela bertakorik, kale hau ez baitago atxekituta ondorio hauetarako. Eskatzaileak aparkaleku horietan aparkatzeko beharra daukala adierazten du, eta eskatzen du aurrerantzean etxe horretan bizi direnek ere “bertako” izaera izan dezaten.

2.- Ibai Arte Elkarteak aurkeztutako idatzia, bertan jarraian azaltzen dena jasotzen dena:

- Jakin dutenez Ferixalekuan kokatuko den TAO guneak goizeko ordutegia izango du soilik (8:00etatik 14:00ak arte). Beraien egunerokotasunean, ordea, ordutegi honek ez du aparkaleku arazoa konpontzen, izan ere arratsaldean izaten baitituzte bezeroek aparkatzeko arazorik handienak. Batzuetan ez da aparkaleku liberrik izaten ez kalean, ez eta lurrazpiko aparkalekuan ere.

- Horregatik Elkarteak eskatzen du Ferixalekuan sortuko den TAO aparkalekuaren ordutegia goizekoaz gain arratsaldean ere, 16:00etatik 20:00etara, izatea.

Aurreko alegazioak aztertu ondoren eta jarraian azaltzen dena kontutan izanik:

1.- Sokoia Azcarate Arregui andreak aurkeztutako alegazioen inguruan hauxe da adierazi beharrekoa:

- Foruen enparantza 6ko eraikinaren kokapena dela eta, ez da egoki ikusten eraikin hori Uribarri-Loramendiko TAO guneen barruan sartzea. Bestalde, aipagarria da eraikinak bere lursailean aparkalekuak dituela.

- Beraz, alegazioan planteatutakoari ezezko erantzuna dagokio.

2.- Ibai Arte Elkarteak aurkeztutako idatzian jasotakoaren inguruko ondorioak hauek dira:

- Ferixalekuan sortuko den TAO aparkalekuaren ordutegia goizekoaz gain arratsaldean ere, 16:00etatik 20:00etara, izatea zuzena ikusten da.

- Beraz, alegazioari baieztoko erantzuna ematea dagokio eta, ondorioz, onartutakoa Ordenantzaren aldaketaren testuan sartuko da.

Ikusirik apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa, toki araubideko arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena.

Hauxe proposatu dio Udalbatzarrari Hirigintza batzordeak:



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

I.- Aipatutako Ordenantzaren 1go Aldaketa Puntualaren jendaurreko izapidean aurkeztu diren alegazioei goiko ataletan jasotzen diren terminoetan erantzutea.

Hori horrela, Sokoia Azcarate Arregui andreak aurkeztutako alegazioa ezeztatuta geratzen da, adierazitako arrazoiengatik.

Halaber, Ibai Arte Elkarteak aurkeztutakoa ontzat ematen da, eta planteatutakoa Aldaketaren agirian jasota geratuko da.

II.- “ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZAREN 1GO ALDAKETA PUNTUALA”ren agiria behin betikoz onartzea, hasiera baten onartutako testuan ontzat emandako alegazioan planteatutakoa jasoz.(Ikus II. Eranskina)

III.- Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, “*Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen apirialeren 2ko 7/1985 Legea*”-ren 70-2. artikuluan adierazitakoarekin bat, araua indarrean sartu dadin.”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Arratsaldeon. Guk aurka bozkatuko dugu. Creemos que es insuficiente el planteamiento que hace la Corporacion, el gobierno local en la actuacion de la OTA, porque creemos que se tiene que extender o se deberia de haber extendido ya en el centro del municipio. Es una cuestion que nosotros llevamos solicitando desde hace tiempo. En el momento que se puso en marcha la ordenanza de estacionamiento limitado por lo que creemos, aunque Ibai Arte ya pidio en su dia que se ampliara el horario de la zona de Ferixaleku, creemos que no solamente hay que ampliar horarios, hay que ampliar la zona de la OTA por lo que volvemos a reclamar que se ponga en marcha ya, porque esta ya todo, todos conocemos cual es el comportamiento de los ciudadanos ante la OTA que ya está implantada y por lo que parece funciona. Entonces, porque no hacerlo ya definitivamente en las zonas que deberia de estar implantada hace tiempo. La mayor necesidad de implantacion está en el centro por lo que creemos que es insuficiente esta modificacion puntual de la ordenanza y volvemos a solicitar que la OTA se instale pues en todo el centro y en las zonas en las que más se necesite. Por eso votamos en contra de esta modificacion.

JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV): Guk ere koherentzia jarrita aurreko Pleno aretoan hartu genuen posturan Aritzek esan dauenakin hor jarraitzen du nahiko ez dela eta eskatzen du beste leku batzuetara OTA zabaltzea. Horregatik aurka bozkatuko dugu.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Nik Juan karlos gogoratu hau Hirigintzan tratatu zela eta aurka ez zenuela bota. Eta bueno, Aritz ez zan egon bilera horretan baina zu adostasuna azaldu zenuen eta gure argudio da berdina. Ados gaude TAO erdigunera zabaldu behar dela eta horrexegatik erabaki dugu Ferixalekuan hastea froga moduan. Ikusita erdigunea errealitatea desberdina dela ez dela berdina unibertsitatea edo



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

erdigunea pentsatu dugu poliki hortik hastea baina bai gure asmoa da zabaltzen joatea eta besterik ez badago Bozketara pasatuko gara

Bozketaren emaitza: **Diktamena ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	16	
Aldeko botuak:	9	BILDU (9)
Aurkako botuak:	7	PSE-EE (4) eta EAJ-PNV (3)
Abstentzioak	0	

7.- 2013KO KONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA (2014RBAR0025)

Idazkariak Ogasun Batzordearen ondoko diktamena irakurri du:

“Ogasun Batzordeak, 2014ko ekainaren 5ean, txosten hau eman zuen:

“2013ko urtealdiko Kontu Orokorrari buruzko txostena.

Aurrekontu gaietan indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzeko, 2013 urtealdiko kontabilitate kontuak aztertu ditu batzordeak, udalarenak nabiz Aukea eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoenak; hain zuzen ere, aurrekontuaren likidazioa, kredituak aldatzeko espedienteak, diruzaintzako egoera eta aurrekontutik kanpoko dirukontuen mugimenduak, egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, finantzaketa-taula, ibilgetuari buruzko eranskinak, konpromisoko kredituak, finantza inbertsio iraunkorrak eta emandako abalak.

Kontuan izanik dokumentazio horretan ondo dagoela jasota 2013ko urtealdian bizi izandakoa Udalaren eta Aukea eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren arteko ibilbide ekonomikoan, eta 2013/12/31an behar bezala dagoenez jasota finantza eta ondare egoera, Ogasun Batzordeak aldeko txostena ematen dio Kontu Orokor horri.

Edozelan ere, udalbatzarrak onartu baino lehen, aipatu espedientea jende aurrean jarri beharko da, 15 eguneko epean, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.”

KONTUAN IZANIK ekainaren 18tik uztailaren 7ra arteko aldian, 2013ko Kontu Orokorrari dagokion espedientea jende aurrean egon dela erakusgai, eta ez dela aurkeztu ezelako erreklamazio, alegazio edo bestelakorik legezko epe barruan.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

KONTUAN IZANIK 2013ko urtealdiko kontuei buruz “ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L.” enpresak egindako auditoriari buruzko txostena, non esaten den 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, Arrasateko Udalaren ondarearen eta finantza egoeraren irudi leiala erakusten duela.

Horregatik guztiagatik, Ogasun Batzorde Informatiboak, 2013ko urtealdiko Kontu Orokorra onartzea proposatzen dio Udalbatzari.”

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentziorik?

ARITZ ARRIETA (PSE-EE): Nosotros votaremos en contra como hacemos habitualmente con los temas relacionados con las cuentas generales y los presupuestos porque en su día votamos en contra de los presupuestos también.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Bozketara pasatuko gara

Bozketaren emaitza: **Diktamena ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	16	
Aldeko botuak:	12	BILDU (9) eta EAJ-PNV (3)
Aurkako botuak:	4	PSE-EE (4)
Abstentzioak	0	

8.- ERAIKUNTZA, OBRA ETA INSTALAZIOEN GAINeko ZERGAN HOBARIA EZARTZEKO PROPOSAMENA, NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO JARDUERAK IREKITZEKO OBRETAN (2014RBAR0028).

Udal Plenoak, aho batez, Hazienda Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Ingurumen Saitetik Udal Ordenantza Fiskalak aldatzeko eskaera heldu da, hain zuzen ere, Nekazaritza jarduerekin erlazionatutako obrek, eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zergaren kuotaren % 50 edo %90eko hobaria izan dezatela, jardueraren ezaugarrien arabera.

Egindako idatziari dagokionez,

KONTUAN IZANIK Arrasateko Udalak aspalditik dituela onartuta Baserrietarako egiten diren obretan hobariak, konkretuki, gaur egun indarrean dagoen araudia hauxe da:



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

“1.- Baserriak ondorengo hobariak izango dituzte:

a) Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Rf unit/R Refe ratioa %5a edo gehiago bada, %50eko hobaria.

b) Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Rf unit/R Refe ratioa %10 edo gehiago bada, %90eko hobaria.

Betiere, kasu bietan, baserrian eskaera egin baino 5 urte lehenago, gutxienez, baserrian erroldatuta badago.”

KONTUAN IZANIK orain arte Udalaren irizpidea izan dela aipatu hobaria baserriei lotuta zeuden jardueri ematea, hau da, bai baserrien eraikinetan eta baita baserriei lotutako jardueretan egindako obrak izan dituzte hobariak. Aldiz, orain, lehendabiziko sektoreko jardueri bultzada emate nahi die Arrasateko Udalak, eta horregatik, Ingurumen Batzordeak egoki ikusi du nekazaritza jarduera guztiei eskaintzea aipatu hobaria, baserri bati lotuta egon edo ez, eta hauxe da egindako hobari proposamen zehatza:

“Nekazaritza jarduerak (oilategiak, ukui luak, biltegiak, e.a.) ondorengo hobariak izango dituzte:

a) Kuotaren %50eko hobaria izango dute Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Rf unit/R Refe ratioa %5a edo gehiago bada.

b) Kuotaren %90eko hobaria izango dute Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Rf unit/R Refe ratioa %10 edo gehiago bada.”

KONTUAN IZANIK aurkeztutako proposamena egokia izan daitekeela irizten duela Ogasun Batzordeak ere bai, azken finean ez delako beharrezkoa nekazaritza jarduera guztiak baserrietan ematea, eta gero eta gehiago eman daitekeelako baserri bati lotu gabe dauden lehendabiziko sektoreko jarduerak sortzea. Beraz, proposamenarekin bat egiten du.

Hori dela eta, Ogasun Batzordeak ondorengo akordioa hartzea proposatzen dio Udal Plenoari:

1.- Behin-behineko izaeraz ontzat ematea Ingurumen Sailak egindako eskaera, nekazaritza jarduerekin erlazionatutako obrek, eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zergaren kuotan hobaria izateko, ondorengo araudiaren arabera:

“Nekazaritza jarduerak (oilategiak, ukui luak, biltegiak, e.a.) ondorengo hobariak izango dituzte:

a) Kuotaren %50eko hobaria izango dute Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Rf unit/R Refe ratioa %5a edo gehiago bada.



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

b) Kuotaren %90eko bobaria izango dute Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko datu ekonomikoetan Rf unit/R Refe ratioa %10 edo gehiago bada.”

2.- Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatu tasa aldatzeko espedienteak jende aurrean erakustea, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten Idazkaritzako bulegoan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita 30 asteguneko epean.

3.- Behin-behineko akordioek kontra erreklamaziorik aurkeztu ezean, eta uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16. artikuluan 3. atalean ezarritakoaren arabera, behin-betiko onartutzat joko da akordio hau eta, beraz, aldaketa honen eragina hortik aurrerakoa izango da.

9.- LANKIDETZA HITZARMENA, UDALA ETA DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN ARTEKOA, 2014KO ABUZTUAN DOKUMENTUAK ERREGISTRATZEARI BURUZKOA (2014SSEC0014)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Udaltzaingo Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Arrasateko Udalak urte osoan, abuztuan ere, Biztanleen Arreta Zerbitzua irekita du, udaleko leihatila bakar gisara, besteak beste, Udaleko Erregistro Orokorrean eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak aurkeztu ahal izateko.

Debagoieneko Mankomunitateak, berriz, bere Erregistro Orokorrean enplegatu bakar bat duela eta, Erregistroan mugimendu gutxien dagoen hilabetea abuztua denez, abuztuan hartuko dituela bere oporrak, abuztuaren 4tik 29ra arte, Erregistro Bulegoa itxita egongo delarik.

Abuztuko hiru aste horietan Debagoieneko Mankomunitateari zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak Arrasateko Udalaren Erregistro Bulegoan, Biztanleen Arreta Zerbitzuan, aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan oinarrituz, Mankomunitateak eskatu dio Arrasateko Udalari Mankomunitatera zuzendutako dokumentuak udal erregistroan jaso ahal izatea.

Udalaren aldetik ez da eragozpenik ikusten lankidetzak hori gauzatzeko, eta hortaz, Mankomunitateak eskatutakoa betetzeko Lankidetzak Hitzarmena sinatzea onartzen du.

Hori guztia ikusita, Pertsonal eta Udaltzaingo batzordeak hauxe proposatzen dio Udal Plenoari:



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

LEHENENGO.- Lankidetz hitzarmena onartzea, Arrasateko Udala eta Degagoieneko Mankomunitatearen artekoa, 2014ko abuztuan dokumentuak erregistratzeari buruzkoa (Ikus III. eranskina).

BIGARREN.- Erabaki hau Debagoieneko Mankomunitateari jakinaraztea.”

10.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA.

Udal Plenoak Alkateak emandako ebazpenen berri hartu du, 2014ko ekainaren 27tik uztailaren 18ra bitartekoak (Ikus IV. eranskina).

GALDE ËESKEAK:

Ez badago eskerrik asko etortzeagatik eta ondo pasatu oporrak eta ikusiko gara.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:25ean, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko uztailaren 22an

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

Inazio Azkarragaurizar Larrea



Esp.-kodea: 2014SAPL0009

I. ERANSKINA

UDAL ORDENANTZA, PROIEKTUAK IDATZI ETA URBANIZAZIO OBRAK EXEKUTATZEKO (HASIERAKO ONESPENA)

AURKIBIDEA

ERANSKINAK

- 1.- Exekuzio proiektuan sartu beharreko planoen zerrenda.
- 2.- Planoak exekutatzekeo marrazketa arauak.
- 3.- Antolamendua: bide sarea eta oinezkoen gunek.
- 4.- Egiturak eta fabrika obrak.
- 5.- Zoladura.
- 6.- Lorategiak eta ureztatzeko sarea.
- 7.- Hiri altzariak.
- 8.- Seinaleak.
- 9.- Ur hornidura.
- 10.- Saneamendua.
- 11.- Kanpoko argi publikoa.
- 12.- Udal zerbitzuak.
- 13.- Telefonía eta telekomunikazioak.
- 14.- Energia elektrikoa.
- 15.- Gas sarea.
- 16.- Zuinketa aktaren eredia.
- 17.- Jarrailpen bileren akta eredia.
- 18.- Zerbitzuan jartzeko akta eredia.
- 19.- Onarpen aktaren eredia.
- 20.- Behin betiko berme epea amaitu izanaren akta eredia.

ATARIKO TITULUA: ORDENANTZAREN XEDEA

1. Artikulua. XEDEA

Agiri honen xedea da urbanizazio publikoetan esku-hartzeak erregulatzeko arauak ezartzea. Urbanizazio publikoaren obratzat jotzen dugu jabetza edo erabilera publikoko gune libreetako lurzoruan edo zorupean egin beharreko edozein obra.

Proiektuari, material exekuzioari eta urbanizazioaren obrak eta zerbitzu azpiegiturak entregatzeari buruzko alderdiak jorratzen dituzte arau erregulatuak horiek.

Era berean, urbanizazio irizpideak ezarri dira, bai eta diseinuko parametroak eta zehaztapenak ere, bai zerbitzu azpiegiturenak bai hiri elementuenak, udalerriri osoan.

Horretarako, urbanizazio proiektu eta urbanizazio obra guztiak bete beharreko baldintza/preskripzio teknikoak zehaztuko ditu agiri honek, berdin dio zer kudeaketa era duen edo horiek zeinek sustatzen dituen.

Ordenantza honen ondorioetarako, udalaren sustapen obratzat joko dugu Udala denean obraren sustatzailea; eta sustapen pribatutzat joko ditugu gainerako obrak, sustapen publikoko obratan Udala ez den beste eragile bat denean sustatzailea.

Hala, oinarrizko tresna ere izango da ordenantza, udal sailetatik sustatzen diren urbanizazio obra edo urbanizazio konponketa guztien irizpideak koordinatu eta batzeko tresna.

Era berean, urbanizazio proiektuak eduki behar dituen agirien normalizazioa lortuko dugu, bai eta obra bukaerako agiria ere; horrela, organo izapidetzaileak proiektua kalifikatzean zalantzarik eta duda-mударik gabe erabaki dezan.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.

2. Artikulua. ARAUDIAREN APLIKAZIO EREMUA

Ordenantza honen aplikazio eremuan sartzen dira hiri sarean (lurzoru hiritarra eta lurzoru urbanizagarria) egiten diren urbanizazio publikoko proiektu eta obra guztiak, berdin dio zer kudeaketa era duen edo zein den sustatzailea. Hortaz, derrigorrean bete behar da:

- Udal sustapeneko urbanizazio berrietan.
- Sustatzaile pribatuek egindako urbanizazioetan (auzo komunitateak, konpainia hornitzaileak, eta abar), Udalari laga behar zaizkionak eta Udalak berak onartu behar dituenak.
- Erabilera publikoko zortasuna duten partzela pribatuetan.
- Erabilera publikoko zortasuna duten eremu finkatu publiko eta pribatuen berrurbanizazioetan eta berriztapenetan.

Partzela pribatuetan ordenantza honek gomendio maila izango du, baina interbentzio batek eragina izanez gero modu esanguratsuan urbanizazio publiko batean, izaera subsidiarioa izango du.

Kontuan hartu beharko da planeamendu orokorra nahiz garapeneko planeamendua garatzen duten urbanizazio guztietan, eta hauek sartuko dira horietan:

- Lurzoru hiritar finkatuan egindako urbanizazioa eta berrurbanizazioak.
- Finkatu gabe dagoen edo birmoldatzen ari den lurzoru hiritarrean egindako urbanizazioak, orube izaera, ez badute, lortze aldera egiten direnak.
- Antolamenduko planeamendu orokorraren zuzeneko exekuzio urbanizazioak.
- Garapeneko planeamenduen exekuzio urbanizazioak.

II. TITULUA: PROIEKTUAK IDAZTEA

Ordenantza honen aplikazio eremuari eragiten dioten obra guztiak dagokion proiektu teknikoa izan behar dute; horien ezaugarriak hemen datoz deskribatuta:

3. Artikulua. DEFINIZIOA

Urbanizazio proiektu osoa da eraikuntza mailan jardute eremuaren zirkulazioko ibilbideak eta oinezkoen barne ibilbideak definitzen dituen proiektua, inguruko hiri eremuarekiko konexioekin batera, bai eta egoteko eremuetako zolatzea eta berdeguneetako egokitzea ere.

Era berean, urbanizazio proiektuak beharrezkoak diren zerbitzu azpiegiturak hornitu eta definituko ditu partzela edo eraikuntza bakoitzerako.

4. Artikulua. PROIEKTUAK EDUKI BEHAR DITUEN AGIRIAK

Urbanizazio proiektuek agiri hauek eduki beharko dituzte:

- Memoria, dagozkion eranskinekin.
- Planoak
- Baldintzen agiria
- Aurrekontua.
- Eraikuntza obretan segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betetzeko idatzi behar diren agiriak.
- Obren kalitate kontrolarekiko erregulatutakoa betetzeko idatzi behar diren agiriak.
- Eraikuntza eta eraiste lanetako hondakinen produkzio eta kudeaketa eremuan indarrean dagoen araudia betetzeari buruzko agiriak.

Hurrengo artikuluetan lehen aipatutako agiri bakoitzak jaso behar duena zehaztuko dugu.

5. Artikulua.- MEMORIA

A) MEMORIA DESKRIPTIBOA

Proiektuaren memoria deskriptiboak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Proiektuaren xedea.
- Aurrekariak. Hauek sartzea komeni da:
 - Enkargua eta kontratazioa, jabetzari buruzkoa.
 - Idazleak osatzea.
 - Aurretik egindako azterketak.
 - Aurrekari historikoak.
 - Jabetzaren baldintzak eta lege esparrua.
- Eragindako eremuaren edo sektorearen proiektuaren oinarria osatzen duen planeamendua.
- Interbentzio eremuaren oraingo egoeraren deskripzioa.
- Proposatutako antolamenduaren justifikazioa, eta hor sartuko da, Proiektua onartzean eskudunak ez diren entitateek edo erakundeek ezarritako irizpideen arabera lortzeko beharrezkoak diren gestioak egitea (Uren Lurralde Zerbitzua, Errepide Departamentua, Ingurumen Departamentua, Obra Hidraulikoetako Departamentua...), halakorik egonez gero.
- Proiektuan jasotako zerbitzuen deskripzioa eta justifikazioa, eta era berean eremuan dauden zerbitzuak deskribatzea eta haiek berriztatzea, behar izanez gero.
- Proiektuan jasota dauden hiri altzarrien eta seinaleen deskripzioa eta justifikazioa.
- Proiektua osatzen duten agirien aurkibide orokorra.
- Obren exekuzio epea.
- Aurrekontuaren laburpena: Obrako aurrekontua eta administrazioak jakin dezan egindako aurrekontua.

MEMORIAREN ERANSKINAK

Memorian adierazi beharreko alderdien edukiak behar besteko garrantzia duenean, memoriaren eranskinen bidez garatuko da. Eranskin horiek eskema honen arabera garatuko dira:

b.1) Ezaugarri orokorrak

Eranskin honetan urbanizazioaren planeamendu ezaugarriak nahiz ezaugarri geometriko eta teknikorik garrantzitsuenak jasoko dira, bai eta aurrekontuaren arabera obra unitate garrantzitsuenak ere.

b.2) Planeamenduari egokitzea

Eranskin honetan, aztertu beharreko jardun eremuan indarrean dagoen planeamenduarekin proposatutako antolamendu orokorraren onespena justifikatuko da.

b.3) Topografia

Proiektua exekutatzeko, 10 m-ko zabalera duen eremu osoaren jasotze takimetroko bat egin beharko da, gutxienez perimetro osoan.

Jasotze takimetroko egiteko, gutxienez 3 zuinketa oinarri erabiliko dira, haien guztien artean ikusten direnak. Jasotzearen azaleraren arabera izango da oinarri kopurua.

Topografia UTM koordinadetan egongo da. Takimetrokoaren elementu guztiak 3Dn egongo dira. Sestra kurbak, printzipioz, metro erditik metro erdira egongo dira, eta eskalaren arabera aldatu ahal izango dira.

Topografian iparra 50 m x 50 m-ko erretikula batekin batera markaturik egongo da.

Airetiko lineen nahiz lurpeko sareen arketen kokalekua eta definizioa ezarriko ditu plano topografikoak.

Era berean, eta behar izanez gero, eremuko partzela planoak jasoko du plano topografikoak.

Eranskin topografikoan barne hartuko da, batetik, justifikatzeko txosten bat eta, bestetik, jasotze lanean erabilitako oinarriak, bakoitzerako fitxak sartuta, eta hor haien koordinadak, haien oinplano kokalekua adieraziko dituzte, bai eta haren argazki bat ere.

Urbanizazio proiektuaren behin betiko agiria entregatzean, euskarri informatikoan entregatu beharko da, eta bateragarria izango da udalaren GIS sistemarekin eta 2. Eranskinean definitutako Txantiloaren arabera exekutaturik egongo da.

b.4) Azterketa Geoteknikoa

Lursail-obra iterazioa gutxienezkoa izan ezean, eta betiere behar bezala justifikatzen bada, urbanizazio proiektu guztiek azterketa geotekniko bat eduki beharko dute, jardun behar den lursaila bereiziko duena.

Lursail-obra iterazioa gutxienezkotzat jotzen da, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

- Ez dago fabrika obra garrantzitsurik, ez edozelako zimentaziorik, ez 2 m-tik gorako alturako eustormarik.
- Ez dago aurreikusita lur mugimendu esanguratsurik exekutatzea.
- Ez dago aurreikusita 3 m baino sakonera handiagoko zangarik exekutatzea.

Azterketa geoteknikoa da hainbat landa lanen, laborategiaren emaitza, dagozkion kalkuluekin, eta hortik aterako dira konklusioak/gomendioak. Baina, batez ere, eremuaren karakterizazioan erabilitako irizpidea azaldu behar du, dauden alternatiba edo aukera teknikoak ebaluatu eta planteatutako soluziobideak aukeratu izana justifikatu.

Oro har, azterketa geotekniko guztiek hainbat helburu bete beharko dute. Horrela:

- Aurreko txosten geologiko/geoteknikoak aztertuko ditu, proiektuaren eremuan eta inguruko esparruetan (egonez gero eta erabilgarri egonez gero). Inguruaren historiaren eta lursailean aurretik izandako erabileren deskripzioa emango digu; hor sartzen dira harrobiak, zabortegiak, meategiak, eraikinak, lurpeko egiturak, iturriak eta putzuak. Mapa topografiko historikoak (eskala 1:5.000) www.gipuzkoa.net deskargatu daitezke.
- Inguruko esparru geologiko orokorra definituko du eta, bereziki, lursailaren ezaugarriena, aztertu behar den inguruko zorupean, bai ikuspegi geologikotik bai ikuspegi hidrologikoa eta geoteknikotik. Inguruko EEEn lurralde mapa geologikoaren zatia kopia bat sartuko da (1:25.000 eskalan).
- Lursailak topografia "zaila" izanez gero, 3Dn aireko argazkien azterketa bat egingo da. Aireko argazki historikoak, kalitatekoak eta behar beste gainjarrita, zuzenean lortu daitezke Gipuzkoako Foru Aldundian edo beste iturri batzuetan. Internet bidez lortutako aireko argazki historikoek ez dute izaten behar besteko kalitatearik.
- Landa lanetan oinarrituko da, katak egitea, zundaketak, pentrometroak, geofisikoak, bertatik bertara egindako entseguak, eta abar izan daitezke, eta laborategiko entseguen emaitzak (7 Eurokodea. 2 eta 3 zatia).
- Lursailaren geruzen ezaugarri eta parametro geotekniko nagusiak definituko ditu, zimentazioek onartu dezaketen karga eta proiektatutako indusketen eta betelaren egonkortasuna zehazteko. E 1:1000 eskalan egindako plano bat agertu behar du, eta hor eremuan dauden lurzoru motak eta/edo harkaitzak

errepresentatuko ditu, landa lanean egindako katen eta zundaketen kokalekuaz gain eta laborategirako laginak jasotzeko lekuez gain.

- Landa datuetan eta laborategiko entseguetan oinarriturik, kalkuluaren atal bat izango du, ezponden egonkortasunari buruz eta izan litezkeen irristatzeak direla-eta ezpondak egonkortzeko alternatiben ebaluazioari buruz, eta hor sartuko dira aldi baterako baldintzak, baldintza iraunkorrak eta maila freatikoko aldaketak.

Gainera, txosten geoteknikoak hauek moduko gomendioak agertu beharko ditu:

- Proiektatutako indusketak, hala nola, industeko metodoak, ezponda egonkorak, drainatzea, egonkortu eta eusteko metodoak, indusketatik datozen materialak egiaztatzearekin batera, urbanizazioaren betelanak egiteko balizko mailegu moduan.
- Pentsatutako betelanak, hala nola, zimendua prestatzea, erabili beharreko materialak, geruzen lodiera, trinkotze metodoak, asentuak, egonkortasun azterketa, drainatzea, karga onargarria, lursailaren hobetzea, eta abar.
- Lursailaren deformazioen eta betelan bertikal eta horizontalen estimazioak.
- Zimendu baldintza orokorrak, haren sakoneraz, karga onargarriaz, eta abarrez, eraikuntza eremuetan, bai eta eusteko egiturentzat ere, eta asentuak izateko aukera aztertuko da.
- Obra egin bitartean plangintza, gainbegiratzea, ikustea eta kontrolatzea, bai eta entseguen mota, kalitatea eta maiztasuna ere.
- Zorupea eta lurpeko urak osatzen dituzten materialek hormigoia eta altzairua kalteztearen zehaztasuna.

Teknikari eskudun baten sinadura eraman beharko du txostenak eta dagokion elkargoak ikus-onetsi beharko du. Txosten horrek azterketaren ziurgabetasunak eta mugak azpimarratu beharko ditu, eta gomendioak emango ditu beharrezkoak izan litezkeen esplorazio gehigarriak egiteko, entseguak egiteko eta azterketak egiteko.

Ingurumen inpaktuaren gaineko azterketa/txostena

(Otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eranskin honetan dagokion azterketa/txostena sartuko da.

Edukiari eta egiteko erari buruz, Lege horrek ezarritakoa bete beharko du ingurumen inpaktu azterketa/txostenak.

b.6) Trafiko azterketa

Bide nagusietan jardutea barne hartzen badu proiektuak, ibilgailu astunen trafiko azterketa bat egingo da, izan beharreko zoruaren ezaugarriak zehazteko.

Proiektuak jardunak zehazten baditu bi bide nagusiko bidegurutzeetan edo semaforo bidezko bidegurutzeetan, ibilgailuen nahiz oinezkoen trafiko azterketa bat egingo da.

b.7) Trazatua

Bide guztien ardatzetako lerrokadurak behar beste definiturik egongo dira. Lehenik eta behin oinplanoan, elementuak definituz, hala nola, erpinak, lerrokadurak, zuzenak, akordio horizontalak eta bideen bidegurutzea. Altxaeran era bai, zehatz zehazturik luzetako profilak; horretarako, akordio bertikalak, lursaileko kotak eta sestrako kota gorriak adieraziko dira.

Trazatua kalkulatzeko orduan, ordenantza honetako 3. ERANSKINEan ezarritako diseinu irizpideak hartuko dira kontuan.

Edozelan ere, kontuan hartu beharko da bideen zinketa egin ahal izateko behar diren kalkuluetatik datozen datu eta emaitza guztiak sartuko direla eranskin horretan.

b.8) Bide zoruak

Eranskin honetan hauek justifikatu beharko dira, proiektatutako bide zoruak, zehazten duten bi aldagaien arabera, eremuan dagoen lursailaren sostengu ahalmena eta horko trafiko aurreikuspena.

Bide zoruak kalkulatzeko orduan, ordenantza honetako 5. ERANSKINEan ezarritako diseinu irizpideak hartuko dira kontuan.

b.9) Irisgarritasunaren araudia betetzea

Bai betetzen bada, edo betetzen ez bada, Irisgarritasuna sustatzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezarritakoa, eta apirilaren 4ko 68/2000 Dekretuak ezarritakoa, Eusko Jaurlaritzako 20/1997 Legean

ezarritako arau teknikoak garatzen dituen, hartutako soluziobidearen justifikazioa sartu beharko da. Eranskin hau izango da horri buruzko justifikazioa egiteko eranskin egokia.

b.10) Egiturak eta fabrika obrak

Urbanizazio proiektuan fabrika obrak eta/edo egiturak exekutatzeko aurreikusiz gero, eranskin honetan horiek justifikatzeko kalkuluak erantsiko dira, eta erabili beharreko materialen ezaugarriak eman, bai eta behar diren eraikuntza adierazpenak ere. Indarrean dagoen arloko araudia bete beharko da uneoro.

b.11) Kalkulu hidraulikoak

Baldin eta urbanizazioan definizioa sartzen bada, eranskin honetan sare honetako kalkulu hidraulikoak erantsiko dira, bakoitza azpialdetan:

- Ura hornitzeko sarea eta suteen aurka babesteko sarea.
- Euri-urak ebakutzeko sarea.
- Ur zikinen saneamendu sarea.

Sare bakoitzean alderdi hauek aipatu beharko dira:0

- ⊙ Sarearen oraingo egoera.
- ⊙ Hartutako soluziobidearen deskripzio orokorra.
- ⊙ Material motak eta kalitateak.
- ⊙ Kalkuluaren justifikazioa.

Kalkulatzeko orduan, ordenantza honetako 9. eta 10. ERANSKINETAN ezarritako diseinu irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Elektrifikazio kalkuluak

Urbanizazio proiektuak energia sareak exekutatzeko agertzen badu, eranskin honetan proiektu elektriko bat barne hartu beharko da, alderdi hauek agertuko dituen:

- Oraingo sarearen egoera.
- Hartutako konponbidearen deskripzioa eta justifikazioa.
- Material motak eta kalitateak.
- Sarea justifikatzen duten kalkuluak, idatzitako proiektu elektrikoaren arabera.

Urbanizazio barruan transformazio zentro bat edukiz gero, aukeratutako kokalekuaren justifikazio bat sartu beharko du eranskinak, bai eta ingurunean haren integrazioa jasotzen duen oinplano bat ere. Transformazio zentroa lehenetsiz lurpekoa izango da, eta ingurunean integratutako transformazio zentroak ere onartu daitezke (urbanizazioaren eskailera pean, eusteko hormen barruan, lursailaren kontra desnibel eremuetan...). Aireko transformazio zentro isolatuak justifikatutako egoeretan bakarrik onartuko dira, eta betiere proposatzen den urbanizazioarekin bat datorren estaldura edukitzen badute.

b.13) Kanpoko argi publikoaren kalkuluak

Argiteria instalazioa sartuz gero, proiektu bat aurkeztuko da, teknikari eskudunak sinatua, edo argiteria publikoko diseinu espezifikoko memoria tekniko bat, eta alderdi hauek sartuko dira:

- Oraingo sarearen egoera, dauden argien deskripzioa.
- Erabakitako soluziobidearen deskripzioa eta justifikazio orokorra.
- Material motak eta kalitateak, eta horretarako kontuan hartuko dira ordenantza honetako 11. ERANSKINETAN definitutako diseinu irizpideak.
- Sarea justifikatzeko kalkuluak; horretarako kontuan hartuko dira ordenantza honetako 11. ERANSKINETAN definitutako diseinu irizpideak.
- Instalazioaren Energia Ziurtagiria, "kanpoko argien instalazioetan energia Eraginkortasunaren Erregelamendua" 1890/2008 Errege Dekretuaren arabera.
- Diseinuko proiektu hori edo memoria teknikoa, sortu litezkeen aldaketekin, geroago izapidetuko da Industria Ordezkaritzan, legeztatzeko.

b.14) Lorategiak eta ureztatzeko sarea

- Urbanizazio proiektuan lorategi edo berdegune baten exekuzioa agertzen bada, proiektatutako lorategiaren justifikazioa sartuko da eranskin honetan; horretarako, ordenantza honetako 6. ERANSKINean ezarritako diseinu irizpideak bete beharko dira.

Ureztatzeko sareari buruz, alderdi hauek sartu beharko dira:

- Oraingo sarearen egoera.
- Hartutako soluziobidearen deskripzio orokorra eta justifikazioa.
- Material motak eta kalitateak.
- Ureztatzeko sarea justifikatzeko kalkuluak, ordenantza honetako 6. ERANSKINarekin batera doan Lorategien Udal Ordenantzaren ezarritako diseinu irizpideetan oinarriturik.

b.15) Eragindako ondasunak eta eskubideak

Eranskin honek zerrenda xehatu bat izan behar du, eta plano bat ere bai, behar bezala identifikaturik egoteko:

- Aldi batean eta etengabe eragindako jabeak, haien katastro erreferentziak barne harturik.

b.16) Eragindako zerbitzuak

Eranskin honek barne hartu beharko ditu bai behar diren plano orokorrak, bai horien xehetasuna, eta hor enpresa hornitzaile bakoitzaren eraginpeko zerbitzuak identifikatuko dira.

Eranskin honetan ere hauek barne hartu beharko dira, proiektuak eragindako enpresa hornitzaileei bidalitzeko gutunak nahiz jasotako haien gutunak, horietan aipatzen direnean bai sortutako eraginak bai proiektuak sartu daitezkeen geroko jardun aurreikuspenak.

Atal honetan, eragindako enpresa hornitzaile bakoitzak informazio hau ekarri beharko du:

- ➡ Eremuan dauden azpiegitura sareak.
- ➡ Eremuan jarduteko aurreikuspenak hurrengo 5 urteetan.

b.17) Obra plana

Eranskin honetan plangintza bat barne hartuko beharko da, eta aurreikusitako lanetako bakoitzaren iraupena (a priori erabili daitezkeen makineriaren eta eskulanaren arabera) eta horien sekuentzia logikoa adieraziko da.

Horrez gain, obraren garapen globala edo partziala baldintzatzen duten mugarrak adierazi beharko dira.

Ingurunearekiko eragina eta obraren antolaketa

Berrurbanizazio edo birmoldaketa proiektuen kasuan, obra garatzean beste hirugarren batzuekiko eraginak hartzen duen garrantzia ikusita, eranskin espezifiko hau barne hartu beharko da, eta hor alderdi hauek aztertuko dira arretaz:

- Obrako sarbideak
- Obrako hesiak eta itxiturak
- Ibilgailuen trafikoaren behin-behineko desbideratzeak
- Oinezkoen behin-behineko desbideratzeak
- Lehendik dauden eraikuntzei eragitea:

* Zerbitzu harguneeen kokalekua eta ezaugarriak.

* Alboko eraikinetako zimentazioen azterketa, sestra aldaketak proiektatuz gero.

Lehendik dauden hezetasunak, arraildurak, pitzadurak, eta abar aztertzeko beharra identifikatu edo adieraztea, eta haien kontrol guneak ere bai, eta notario akta bat idazteko interesa baloratuko da, dagokion aurrekontu islarekin.

Administrazioak jakiteko eranskina

Azken eranskin hau udalak sustatutako proiektuetan sartu beharko da, eta hor, aurrekontu orokorraz gain, enpresa hornitzaileek egin beharreko desbideratzeek, konexioek, eta abarrek sortutako kostu gehigarriak adieraziko dira, edo, dena delakoagatik, beharrezkoak diren beste obra batzuk sortutakoak ere bai.

6. Artikulua.- PLANOAK

A) SARTU BEHARREKO PLANOEN ZERRENDA

Proiektuan sartu behar diren planoak Ordenantza honetako 1. ERANSKINean zehazten dira. Lehen aipatutako plano guztiak sartzearaz gain, aipatu zerrendan zehazten den kronologia eta nomenklatura ordena jarraitu beharko da.

B) FORMATUA

Urbanizazio proiektu publiko guztietan, Udalak onartu behar dituenak, 2. ERANSKINean definitutako plantilaren arabera egin beharko dira planoak.

DIN formatuan entregatuko dira planoak, UNE serie "A" arauak definiturik.

C) ESKALA

- Definizio orokorreko planoetarako: 1/100, 1/200, 1/500, 1/1000.

- Xehetasun planoetarako: 1/10, 1/20, 1/50, 1/100.

Plano guztietan, hartutako eskala agertu beharko da. Definizio orokorreko planoen kasuan, eskala numerikoa eta grafikoa azaldu beharko dira.

D) GAINJARTZEA:

Antolamendu, zuinketa eta zerbitzu sareen oinplanoak (lehen daudenak nahiz eragindakoak) gainjarrita egon behar dira jatorrizko topografikoan.

7. Artikulua.- BALDINTZEN AGIRIA

Agiriaren misioa da obraren elementuak eta zati batzuk definitzea, materialek izan behar dituzten ezaugarriak zehaztea, erabiltzeko baldintzak eta obrak exekutatzeko baldintzak zehaztea.

A) BALDINTZA TEKNIKO OROKORREN AGIRIA

Hemen sartzen dira oro har obraren exekuzioari aplikagarriak zaizkion xedapen teknikoak.

B) BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

Atariko xedapenak

Barne hartu behar dira:

- Obra definitzen duten agiriak, Proiektuaren kontratu agiriak aipatuz.
- Kontuan hartu beharreko xedapenak (erregelamenduak, jarraibideak, agiria, preskripzioak, eta abar).
- Kontraesanak eta proiektuan aipatu gabe daudenak.

b.2) Atariko xedapenak

- **Materialak**

Materialek izan behar dituzten baldintzak zehaztuko dira, eta haien definizioa, egokitasuna, kalitatea eta obran egin beharreko entseguak zehaztuko dira.

- **Obra unitateen exekuzioa**

- Obra unitateen exekuzio baldintzak zehaztuko dira.
- Onartutako tolerantziak:
- Exekuzioa kontrolatzeko egin beharreko entseguak eta onartu edo ez onartzeko baldintzak.
- Hura exekutatzean arreta bereziak izatea (segurtasun baldintzak).
- Obra unitateen neurketa eta ordainketa.

- **Azken xedapenak**

Hemen obren bukaerari buruzko alderdiak sartzen dira, hala nola, onarpena egiteko aurreikusitako probak, berme aldiaren iraupena eta epe horretan kontserbazio eta mantentze jarduerak.

8. Artikulua.- AURREKONTUA.

A) NEURKETAK

Kapitulu hauetan sailkatutako obrak egiteko behar diren obra unitate eta elementu guztiak banakatutako neurketak sartuko dira:

- Eraiste lanak.
- Lur mugimenduak.
- Zoruak eta zoladurak.
- Fabrika obrak.
- Lorategiak eta urezfatzeko sarea.
- Hiri altzariak.
- Seinaleak.
- Ura hornitzeko sarea.
- Saneamendu sarea: Euri-uren eta hondakin uren saneamendua.
- Kanpoko argi publikoen sarea (argiteria).
- Udal zerbitzuen sarea.
- Telefonía eta telekomunikazio sarea.
- Energia elektrikoaren sarea.
- Gas sarea.
- Sarbideetako obrak.
- Eraikuntzako hondakinen kudeaketa.

B) PREZIOEN KOADROA

Neurketen kapituluaren agertzen diren unitate eta elementuen prezio guztiak agertuko dira behar den moduan ordenaturik eta aipaturik, bai kopuruetan bai hizkietan (lehen prezio koadroa).

C) AURREKONTU PARTZIALAK

Dagokion kapituluaren definitutako obra unitateen neurketei prezioen koadroaren prezioak aplikatuko zaizkie, eta kapituluaren unitate bakoitzerako kopuru globalak lortuko dira.

Obra unitateen aurrekontuen baturak (kopuruak) kapitulu bakoitzaren aurrekontua ekarriko du, aurrekontu partziala izenaz ere ezagutua.

AURREKONTU OROKORRA

Aurrekontu partzialak batu eta exekuzio materialeko aurrekontua izango dugu (EMA).

EMArri zeharkako kostuak eta mozkin industrialak gehituko zaizkie, eta kontrata bidezko exekuzio aurrekontua izango dugu. Aurrekontu horri gehituko zaizkie obraren segurtasun eta osasunari eta kalitate kontrolari (egonez gero) dagozkien aurrekontuak, eta aurrekontu orokorra (BEZ gabe) izango dugu, eta horri BEZ gehituko diogu eta obraren aurrekontu orokorra izango dugu.

E) ADMINISTRAZIOARENTZAKO AURREKONTUA

proiektuari lotutako eta memorian eta haren eranskinetan definitutako interbentzioetatik etorritako kostuak gehituko zaizkie Aurrekontu orokorrari.

9. Artikulua.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Eraikuntza obretan segurtasun eta osasuneko gutxienezko xedapenei buruz, Presidentziaren Ministerioaren urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak ezarritakoa bete beharko dute proiektuek.

10. Artikulua.- KALITATE KONTROLA

Eraikuntzan kalitate kontrola erregulatzen duen Eusko Jaurlaritzaren urriaren 22ko 238/1996 Dekretuak ezarritakoa bete beharko dute proiektuek.

11. Artikulua.- ERAIKUNTZAKO ETA ERAISTE LANETAKO HONDAKINEN KUDEAKETA.

Eraikuntzako eta eraiste lanetako hondakinak sortzea eta kudeatzea erregulatzen duen 112/2012 Dekretuak ezarritakoa bete beharko dute proiektuek.

12. Artikulua.- DISEINU IRIZPIDEAK

Urbanizazio obrak egiteko udaleko zerbitzu teknikoek ezarritako irizpideei erantzungo diete diseinu irizpideek; horiek etengabe eguneratuko dira. Irizpideok ERANSKIN hauetan datoz jasota:

ANTOLAMENDUA: BIDE SAREA ETA OINEZKOEN GUNEA.

Ikusi 3. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

EGITURAK ETA FABRIKA OBRAK

Ikusi 4. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

ZOLADURA

Ikusi 5. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

LORATEGIAK ETA UREZTATZEKO SAREA

Ikusi 6. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

HIRI ALTZARIAK

Ikusi 7. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

SEINALEAK

Ikusi 8. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

UR HORNIDURA

Ikusi 9. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

SANEAMENDUA

Ikusi 10. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

KANPOKO ARGI PUBLIKOAK

Ikusi 11. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

UDAL ZERBITZUAK

Ikusi 12. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

TELEFONIA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK

Ikusi 13. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

ENERGIA ELEKTRIKOA

Ikusi 14. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

GAS SAREA

Ikusi 15. ERANSKINean adierazitako zehaztapenak.

13. Artikulua.- PROIEKTUAK AURKEZTEA, ONARTZEKO

PROIEKTUA IDATZI AURREKO BILERAK

Proiektu egileak behartuta egongo dira Udalari bilera bat edo hainbat (beharren arabera) eskatzeko, eta horretan proiektua non kokatzen den zehaztuko da, informazio honekin:

- ➡ Udalaren jardun aurreikuspena eta irizpideak, aztertu beharreko eremuan eta haren inguruetan.
- ➡ Lehendik dauden udal azpiegituren sareak.
- ➡ IHOBEn inbentarioan eremuaren katalogazioa (kutsatuta egon daitezkeen zoruei buruz). Eremu osoa edo zati bat inbentariatuta egonez gero, proiektuak esplorazio ikerketa bat sartu behar du, IHOBEn metodologiaren arabera egindakoa.

Bilera horrek balioko du, era berean, proiektuan aipatuta datozenak (sustatzailea, Udala, proiektuaren idazleak, ...) aurkeztu eta koordinatzeko.

Proiektu egileek adierazi beharko dute zer gestio egin duten administrazio publiko eskudunetan, Udalean ez beste erakundeetan, jardunari buruz aldeko txosten bat lortzeko egindako gestioak, hain zuzen ere. Era berean jorratuko dira enpresa hornitzaileek eman beharreko informazioarekin lotutako gaiak.

PROIEKTUAK AURKEZTU AURREKO BILERAK

Proiektua behin betiko entregatu baino lehen, proiektu egileak gutxienez bilera bat egin behar du Udalarekin, eta hor egin beharrekoen berri emango dio, Udalak kontrastatu ahal izan dezan proiektua bat datorrela berak ezarritako irizpide orokorrek. Bilera horren ondorioz, aurkeztutako proiektuan aldaketak egin daitezke, betiere ezarritako epean.

C) BEHIN BETIKO ENTREGA

Udalan entregatutako proiektuek indarrean dagoen araudi sektorialean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eta udal erregistroan sarrera emango zaizkie (BAZen).

2 euskarritan entregatu beharko dira:

- **Paperezko euskarria:** DIN formatuan eta DIN A4ri dagokion tamainan koadernaturik.
- **Euskarri digitala:** CD, DVD edo USB formatu hauetan:
 - Testu idatziak: WORD.
 - Udaleko GIS sisteman ezarritako marrazki irizpideekin bateragarri diren planoak (2. ERANSKINA). Planoetan erabilitako ploteo (CTB) irizpideak argi adieraziko dira.
 - Aurrekontua: CYPEko Arquímedes DBD programa eta bc3.
Aurkibide bat sartuko da, eta hor agiri bakoitza euskarri informatikoaren zein lekutan dagoen adieraziko da.
 - Proiektu osoaren kopia, pdf formatuan.

- Topografia plano 3Dn, udalaren GISekin bateragarria.

Behar diren kopia eta separata kopuruak agiritan edo dagozkion udal erabaketan ezarriko dira.

III. TITULUA: OBREN EXEKUZIOA

14. Artikulua.- BAIMENAK ETA ALDEZ AURREKO LANAK

A) SUSTAPEN PRIBATUKO OBRAK EGITEKO BAIMENA

- Jabetza edo erabilera publikoko gune libreetako zorian edo zorupean egin beharreko edozein obrak, alde zurretik, obraren udal baimena eta zoru publikoa hartzeko udal baimena lortu behar ditu.
- Obraren sustatzaileak eskatuko ditu baimen horiek; obra definitzen duen proiektua behin betikoz onartu behar du Udalak.

Udalean alde zurretik entregatu ez bada, agiri hauekin batera etorri behar da baimen horien eskaera:

- Obren exekuzio plangintza, eta obrak noiz hasi eta bukatuko diren adieraziko du.
- Obra okupatzeko beharrak: Obrako edukiontzien egoera, material pilaketa, oinezkoak ibiltzeko gune babestuek, obrako txabola, makineria osagarria, obra itxitura, ordezeko desbideratzeak (behar izanez gero), eta abar.
- Ura hornitzeko udal zerbitzuan alta eskatzea, bai eta udaleko saneamendu zerbitzura lotzeko eskaera ere, horietako bakoitzaren beharrekin eta ezaugarriekin.
- Eragindako bidearen deskripzio orokorra: Espaloiaren eta galtzadaren zabalera, erreiko kopurua, zirkulazioaren noranzkoa, aparkalekuen egoera eta ezaugarriak, bus erreiak.
- Obra era seguruan egiteko egin nahi dituzten seinaleen deskripzio orokorra.
- Obren trazatua eta exekuzioa baldintzatu edo oztopatu ditzaketen hirigintza elementuak: hiri altzariak, lerrotatze zuhaiztia, garraio publikoko markesinak, hondakin solidoen edukiontzia... eta abar.
- Eragin daitezkeen beste udal zerbitzu edo zerbitzu publiko batzuen instalazioak: kanalizazioak, erregistro kamerak, arketak, armairuak eta besterik.
- Eraitsi beharreko zoladuraren eta berriro jartzeko zoladuraren ezaugarriak (5. Eranskinean ezarritako irizpideen arabera).
- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia, beste batzuei egin dakizkiekeen ustezko kalteei aurre egiteko. Udalak gutxienezko poliza definituko du kasu bakoitzerako, arriskuaren arabera.
- Lanen tamainaren arabera, Udalak berme bat jartzeko eskatu dezake, eta horren balioa kasu bakoitzean aztertuko da.
- "Obra zuzendaria"ren izena, teknikari gaitua izango dena, erdi mailako edo goi mailako tituluduna, esperientziaduna eta/edo espezializatua eraikuntza zibilean, eta lanak egoki exekutatzeko erabaki tekniko guztiak hartzeko behar besteko ardurarekin, eta bera izango da ordezkaria udaleko zerbitzu teknikoekin jarduteko, izan ere, haiekin koordinatuko ditu obrei buruz egokiak diren jardunak. Titulazioa eta elkargokide zk. jakinaraziko ditu, bai eta helbidea eta harremanetako telefonoa ere, lanak exekutatzeko aldiaren non dagoen jakiteko.
- "Obra zuzendaria"ren izena, teknikari gaitua izango dena, erdi mailako edo goi mailako tituluduna, esperientziaduna eta/edo espezializatua eraikuntza zibilean, eta lanak egoki exekutatzeko erabaki teknikoekin jarduteko, izan ere, haiekin koordinatuko ditu obrei buruz egokiak diren jardunak. Titulazioa eta elkargokide zk. jakinaraziko ditu, bai eta helbidea eta harremanetako telefonoa ere, lanak exekutatzeko aldiaren non dagoen jakiteko.
- "Segurtasun eta osasun koordinatzailea"ren izena, teknikari eskuduna izango da, eraikuntza zibileko obretan espezializatua, eta lanak exekutatzeko era guztietako erabakiak hartzeko behar besteko ardura duena, Legeak eskatzen duen segurtasun mailarekin. Titulazioa eta elkargokide zk. jakinaraziko

ditu, bai eta helbidea eta harremanetako telefonoa ere, lanak exekutatzeneko aldiaren non dagoen jakiteko.

- "Kontratista adjudikazioduna"ren izena, aurreikusitako obrak exekutatzeneko behar den kalifikazioa izan beharko duena, eta enpresaren kalifikazio hori, obra buruaren eta arduradun orokorraren datuak emango ditu, bai eta horien helbidea eta harremanetako telefonoa ere, lanaren exekuzio aldiaren non dauden jakiteko.

Baimen eskaerak udaleko sarrera erregistroan (BAZen) aurkeztuko dituzte, definitutako agiriekin batera, eta ordezkatzeko duen sustatzaileak edo pertsonak sinatuko ditu.

Obra baimenaren titularra obraren arduraduna izango da, lanaren ondorioz beste batzuei sortutako kalteena, bai eta eragindako eremuak geroago konpontzearen arduradunak ere, behar bezala egin ez badira lanak, eta kontuan izanik eraikuntza enpresak hartutako obligazioak, izan ere, Udalak horri errekeritu ahal izango dio, jardunen zuzeneko arduraduna baita.

Udalak uste badu udalerrian egiten ari diren hainbat obra aldi berean egiteak, bai denboran bai espazioan, era jasanezinean eragina sortzen diela beste batzuei, Udalak aldatu egin dezake obra hasteko sustatzaileak proposatutako eguna. Era berean, Udalak uste badu baimendu beharreko obrak berekin dakarrela eragin inportante bat gune publikoak erabiltzeko orduan hainbat egunetan (feria, jai, eta abar), obra hasteko eguna aldatu dezake.

UDALAK SUSTATUTAKO OBRAK EGITEKO BAIMENA

Udala sustatzaile den sustapen publikoko obrak baimentzeko zehaztapenak obrak egitea erregulatzen duten administrazio agirietan ezarriko dira.

15.- Artikulua. ZUINKETA AKTA

Zuinketa akta da obraren zuinketa orokorra egiaztatu eta gero egiten den agiri bat; hori jaso behar dira orubearen berezitasunak, benetako neurriak, kotak eta ikusitako edozein intzidentzia garrantzitsu, bai eta obraren hasiera ofiziala adierazten duen eguna ere.

Lursailen bertan zuinketa lanak obra zuzendaritzak egingo ditu, eta hark eskatuko dio Udalari dagokion akta sinatzeko. Hori egin baino lehen, baimenaren titularrak aurreko artikuluan aipatutako agiri guztiak aurkeztu beharko ditu.

Zuinketa akta onartuta egongo da hura sinatzen duten unean. Kopia bat Udalaren esku egongo da. 16. ERANSKINean zuinketa akten ereduak sartzen dira, udalak sustatzen dituen obretarako eta sustapen pribatuko obretarako. 2 Motako obraren kasuan, tamaina txikiak direnean, alde batera utzi daiteke agiri hau sinatzea.

16. Artikulua.- OBRAREN EXEKUZIOA.

Lanen exekuzioa egingo du onartutako proiektuarekin bat eta lanak egin bitartean kontuan hartuko ditu eranskinetan ezarrita eta idatzitako diseinu irizpideak (II. Tituluko 12. artikuluan aipatutakoak).

17. Artikulua. - OBRA ALDAKETAK.

Obrak exekutatzen planteatzen diren aldaketak lehendik dauden diseinu irizpideen arabera egingo dira (II. Tituluko 12. artikulua). Hurrengo artikuluan ezarritako protokolei jarraituz tramitatu behar dira aldaketak horiek.

18. Artikulua.- OBREN JARRAIPENA.

Obraren jarraipena egingo da obraren motaren eta tamainaren arabera. Jarraipen mota bat baino gehiago dago:

A) 1. MOTA.- URBANIZAZIO BERRIKO OBRA; SUSTATZAILEA, OBRA ZUZENDARITZA ETA ENPRESA KONTRATISTA UDALAZ KANPOKO ENPRESAK DIRA.

Obraren exekuzio epea, obra egitean sortzen joan daitezkeen aldaketak, eragindako zerbitzuek sortutako intzidentziak eta abar direla-eta ematen du egokia dela sortzea urbanizazio obraren "Jarraipen Batzorde" bat, aldiakako obra bileren bidez gauzatu dena, eta horra joango dira udal ordezkariak, sustatzailearen ordezkariak, obra zuzendaritzako ordezkariak eta kontratista.

Proiektuan jasota datozen soluziobideen alternatiba diren aldaketa eta soluziobideak, obrak egitean sortzen direnak, sortu behar den urbanizazio obraren "Jarraipen Batzordea" gainbegiratu egingo dira.

Batzorde hori obren exekuzioa koordinatzeaz arduratuko da, egin beharreko diseinua doitzeari buruz bereizteaz, horien xehetasuna zehazteaz, proiektuari aldaketak planteatzeaz (behar izanez gero) eta lanak egiteko epeak finkatzeaz.

Baimen eskaeran aurkeztutako plangintzan aldaketak eginez gero, obra zuzendaritzak haren eguneratzea aurkeztu beharko du. Atzerapenak justifikatu egin beharko dira eta era esplizituan onartu beharko ditu "Jarraipen Batzordeak" eta baimena aldatu. Obra zuzendaritzako kideek behar diren gestioak egingo dituzte eta kasu bakoitzean dagozkion txostenak eskatuko dituzte.

17. ERANSKINean, obren exekuzioaren jarraipena egitean erabiliko den bilera aktaren eredua sartuko da. Akta horiek sustatzaileak edo haren ordezkariak idatziko ditu.

B) 2. MOTA.- BERRURBANIZAZIO OBRA; SUSTATZAILEA, OBRA ZUZENDARITZA ETA ENPRESA KONTRATISTA UDALAZ KANPOKO ENPRESAK DIRA.

Sortu daitezkeen aldaketak egiteko, obra horien jarraipenaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu behar ditu.

C) 3. MOTA.- URBANIZAZIO OBRA; SUSTATZAILEA UDALA IZANGO DA ETA OBRA ZUZENDARITZA ETA ENPRESA KONTRATISTA UDALAZ KANPOKO ENPRESAK DIRA.

Sortu daitezkeen aldaketak egiteko, obra horien jarraipenaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu behar ditu.

Obra horietan, obra zuzendaritzak jakinaraziko ditu, hala badagokio, adjudikatutako aurrekontuari buruz izan diren desbideratzeak, eta horien justifikazio teknikoa emango du.

17. ERANSKINean, obren exekuzioaren jarraipena egitean erabiliko den bilera aktaren eredua sartuko da. Obra zuzendaritzak idatziko ditu aktak.

4. MOTA.- UDALAK SUSTATZEN DITUEN OBRAK, OBRAKO ZUZENTZE LANAK UDALAK EGITEN DITU BERE UDAL TEKNIKARIEN BIDEZ, ETA KONTRATISTA UDALAZ KANPOKO ENPRESA BAT DA.

Obra zuzendaritzaren bidez (udal teknikaria) egingo da jarraipena, eta obraren koordinazio orokorraren arduraduna ere bada.

Behar izanez gero, 17. ERANSKINean datorren bilera aktaren eredua erabiliko da.

19. Artikulua.- EXEKUTATZEAN ZERBITZUEI AFEKTATZEA

Behar diren obra lekuak egiten hasi baino lehen, obra zuzendaritzak eta kontratistak in situ edo bertatik bertara egiaztatu beharko dute, azpiegitura sareetako arduradunekin batera, bai udalekoak bai beste enpresa hornitzaile batzuetakoak, non dauden zehatz-mehatz.

Obra egin bitartean eraginez gero Udalak edo beste enpresa hornitzaile batek jabetzan dituen zerbitzuei, eta eragindako horiek presako jardunak behar dituzten matxurak sortuz gero, sustatzaileak edo, hala badagokio, kontratistak egoera horren berri emango die Udalari eta eragindako enpresari. Ahalik eta agudoen zerbitzua berriro abian jartzeko neurriak hartuko dituzte.

Edozelan ere, udal instalazioak direnean, Udalak era subsidiarioan egin dezake obra hori, eta sustatzaileari kobratuko dio sustapen pribatuetan urbanizazioak direnean, edo kontratistari udalak sustatutako obrak direnean, dagokion administrazio prozeduraren bidez. Jardun horrek ez du beharko sustatzailearen eta/edo kontratistaren baimenik.

Udal sareetako batean metro batetik hurbil obrak egin behar izanez gero edo horietan aldaketaren bat egin behar izanez gero, abisua pasatu beharko zaio udal teknikari arduradunari, gutxienez aste bat lehenago.

20. Artikulua.- OBRAK EXEKUTATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK.

A) ASPEKTU OROKORRAK:

Obra eraginda espaloi, pasealekuetan... jarritako elementu guztiak berriro jarri beharko dira eta eragin aurretik zeuden egoeran utzi. Behar den moduan birjarri ezean, lan horiek Udalak egingo ditu, jarritako bermea erabiliz edo dagokion likidazioa eginez, alde batera utzi gabe bidezkoak diren santzioak ere jarri ditzakeela.

Sustapen pribatuetan, baimenaren titularra arduratuko da eragin daitezkeen landaketen zuzaitzak eta hiri altzariak babesteko obrak egiteaz. Sustapen publikoak direnean, kontratistak egingo ditu babes horiek. Espazioak libre utzi behar dira, eta aldira zuzaitzak ureztatu eraikuntza enpresaren baliabideez.

Ingurua garbi mantendu behar da eta, horretarako, dagozkion neurriak hartuko dira eta behar den maiztasunaz, benetan eraginkorra izan dadin.

Esp.-kodea: 2014SAPL0009

B) UR HORNIDURAREN, SANEAMENDUAREN ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN EREMUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ASPEKTUAK:

Ur hornidura eta saneamendua.

Obra baten ondorioz ur hornidurari eta saneamenduari eraginez gero, bai obraren eremuan edo handik kanpo, sustatzaileak, astebete lehenago, jardunaren planteamendua aurkeztuko du Udalean, bai eta, egonez gero, ordezko horniduren aukerak ere.

Energia elektrikoa.

Argiteria publikoa jartzeko energia elektrikoa hornitzeko eskaera egingo du sustatzaileak, lau hilabete lehenago, urbanizazio obrak bukatzeko aurreikusita dagoen egunari buruz.

Hornitzailearen baldintza ekonomikoak onartu eta gero, horiek ordaindu egingo dira, izan ere, hala egin ezean, tramitazio prozesua iraungi egingo da.

C) OBRAREN SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN EREMUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ASPEKTUAK:

- Obrak behar den moduan seinalatzatu eta babestuko dira, Bide Segurtasuneko Legearen eta indarrean dagoen gainerako legeria aplikagarriaren arabera.

Nahitaez izan behar dira ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa segurtasun baldintza egokietan, eta horrek eskatuko du arauzko neurriak hartzea seinale bertikala eta/edo horizontalekoak, informazio karteletakoak eta errotuluak, uneoro bermatzeko oinezkoen, auto-gidarien eta obrako langileen segurtasuna.

Bide publikoan zerbitzuak jartzeko egiten diren obra guztiak babestu eta seinalatzatu egin behar dira, besteak beste, hesi adierazleez eta kartel normalizatuaz, aurrez adierazitako preskripzioen arabera.

- Obren exekuzioak zirkulazio etena badakar, zailtzen badu nabarmen ibilgailuen zirkulazioa edo aldatzen baditu oinezkoen ibilbideak, gorabehera horiek seinalatzatu egin behar dira behar bezala, berrurbanizazio obra denean, beti eduki behar da libre jabetzako sarbidea eta urgentziako ibilgailuen sarbidea. Zirkulazioa eteteko eta oinezkoen ibilbideak desbideratzeko, udal baimena izan behar da (bai obraren baimen orokorrean bai geroagoko baimen puntual batean).

Jarri beharreko trafiko seinaleak arauzkoak izango dira, eta horien antolaketa egokituko zaie hiri ezaugarriari, bai eta obra dagoen lekuari ere, eragindako bide zatiari dagokionez.

- Espaloietan, pasealekuetan, aldi bereko bideetan egiten diren berritze obrak egiteko, jabetzako sarbideak eta oinezkoen igarotzea behar den segurtasunaz izan behar dira.

Oinezkoen igarotzea seguru eta eroso izateko, pasabide bat egingo da, metro bat baino txikiagoa ez den zabalera batekoa, fatxada ondoan eta fatxadaren luzetara. Espaloiaren zabalera uzten ez duenean aldi berean zanga irekitzen, materialak jartzen eta oinezkoentzat zabaleran metro bateko luzetako pasabide hori, galtzadan ezaugarri horietako pasabide bat egokituko da, behar den moduan hesiturik eta babesturik, eta fatxadarekiko deribazioez, ondasun higiezinaren sarbide bakoitzaren aurrean. Uneoro zabalik egongo dira pasabide horiek.

- Oinezkoen pasabideek zanga irekiren bat igaro behar dutenean, oinezkoen pasarelez beteko dira, koskarik ez izateko eta horrela oinezkoak edo ibilgailuak pasatzen direnean haiek eusteko behar besteko erresistentzia eta gogortasuna izan dezaten. Bizilagunei eragozpenik ez sortzeko moduan jarri behar dira.
- Oinezkoen behin-behineko ibilbideek Irigarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoa bete beharko dute, bai eta halako kasuetan irigarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak garatzen dituen 68/2000 Dekretuak ezarritakoa ere.
- Babesteko hesiei eta ibilgailuen eta oinezkoen trafikoaren mantentzeari buruz gutxienezko segurtasun arauak bete ez izana nahikoa arrazoia izango da obra berehala geldiarazteko, baina kontuan izanik bidezkoak diren zigorrak ere jarri daitezkeela.

21. Artikulua.- OBRAK BUKATZEA

Obrak bukatu eta gero, obrak onartuko dira. Hala ere, onartu baino lehen, obrak zerbitzuan jarri ahal izango dira.

Jardun horiek hurrengo artikuluetan zehazten den prozeduraren arabera egingo dira.

22. Artikulua.- ZERBITZUAN JARTZEA.

Justifikatutako arrazoiengatik, urbanizazioa edo haren zati bat zerbitzuan jarri behar izanez gero, egindako urbanizazioa zerbitzuan jartzeko eskatu ahal izango dute, agiri hauek aurkezturik:

- Obra zuzendaritzaren txostena, eta hor adieraziko du zerbitzuan jarri nahi duten eremuak gutxienezko segurtasun baldintzak betetzen dituela erabiltzeko eta zuzen funtzionatzeko. Bereziki nabarmenduz kanpoko argi publikoak, euri-uren ebakuazioa eta zoladura.
- Zerbitzuan jarri behar den eremuko argiteriari dagokion energia elektrikoaren hornidura kontratua.

Kasu honetan, lehen adierazitako agiriak aurkeztean badituzte, sustatzaileak, kontratistak, obra zuzendaritzak eta Udalak zerbitzuan jarri izanaren akta sinatuko dute.

18. ERANSKINean zuinteta akten ereduak sartzen dira, udalak sustatzen dituen obretarako eta sustapen pribatuko obretarako.

23. Artikulua.- OBRA BUKAERAKO AGIRIAK

Obrak Udalak onartzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Obra bukaerako ziurtagiria.
- 2.- Obraren memoria deskriptiboa, jatorrizko urbanizazio proiektuari buruz izan diren aldaketak azpimarratu eta justifikatzeko.
- 3.- Obra bukaerako planoak; hor urbanizazioaren eta oinplanoan nahiz aurretiko bistan ezarritako zerbitzu sareen behin betiko egoera adieraziko da.
- 4.- Obraren likidazioaren aurrekontua.

Kalitate kontrolako agiria, egindako kalitate kontrolako saioak barne hartzen dituen, obra zuzendaritzak egindako txosten bat, non-eta zehaztuko diren aplikatutako araudia eta erabilitako onartze irizpideak eta saio horien kokalekuaren plano bat.

Besteak beste, zehatzak diren edo ez, kalitate kontrolako saio hauek egingo dituzte:

- Indusketa lanak
- Betelanak (hezetasunak – dentsitateak, karga plakak).
- Hormigoiak (erresistentziak)
- Altzairuak (erresistentziak)
- Hornitzeko sareak: Presio eta iragazgaitasun probak, garbiketa eta desinfekzioa.
- Saneamendu sareak, telebista kameraz ikuskatzea, jarritako hoderia ikuskatzea.
- Argiteria sareak: "Mandrinaketa" bidezko hodiak, faseen oreka, lurreko erresistentzia, azken benetako neurketa luminoteknikoak, eta abar.
- Zerbitzu sareak: "mandrinaketa" bidezko hodiak.
- Telekomunikazio sareak: "mandrinaketa" bidezko hodiak.
- Energia elektrikoaren sareak: "mandrinaketa" bidezko hodiak.
- Gas sareak: Zerbitzuan jartzeko baimenaren aurreko probak.

6.- Eraikuntzako hondakinak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatu izanaren egiaztagiria.

7.- Energia elektrikoaren horniduraren kontratua, tarifa alde aurretik kontsultaturik Udaleko Zerbitzu Teknikoekin, Udalak kontratatutako duen konpainia sal-eroslearekin. Kontratuarekin batera, hura lortzeko beharrezkoak diren agiri guztiak erantsi beharko dira.

Obrak onartu eta gero, urbanizazio pribatuen kasuan, kontratuaren titulartasuna aldatuko da.

8.- Urbanizazioaren elementu bereziak kontserbatu eta mantentzeko irizpideak eta gomendioak.

Enpresa hornitzaileei laga behar zaizkien instalazioak izanez gero, konpainiak laga behar zaion instalazio osoa onartu izana barne hartu beharko da agirian.

Obra bukaerako agiriak honela aurkeztuko dituzte:

- **2 kopia paperean:** DIN formatuan eta DIN A4ri dagokion tamainan koadernaturik.
- **2 kopia euskarri digitalean:** CD, DVD edo USB formatu hauetan:
 - Testu idatziak: Word.
 - Planoak: Plano bakoitza bat etorriko da marrazki fitxategi batekin. Argi eta garbi adieraziko dute zeintzuk diren ploteoko planoak izenaren bidez, eta udaleko GIS sistemaren marrazki irizpideekin bat etorri behar da eta bateragarria izango da. Kasu bakoitzean erabilitako CTB sartuko da.
 - Aurrekontua: CYPEko Arquímedes DBD programa eta bc3.
 - Obra bukaerako agiriak, pdf formatuan.

Aurkibide bat sartuko da, eta hor agiri bakoitza euskarri informatikoaren zein lekutan dagoen adieraziko da.

Lehen aipatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte 1. Mota eta 2. Motako obrak direnean, eta obren sustatzaileak aurkeztu beharko ditu.

Nolanahi ere, 3. Mota eta 4. Motakoak direnean obrak, kontratua arautzen duen baldintzen agirian eta udal teknikari arduradunaren jarraibideetan adierazitakoaren arabera aurkeztuko dituzte.

24. Artikulua. - OBRAREN ONARPENA

Obren onarpena egiteko, honela jardungo dute:

1. ONARPEN FORMALA EDO HIRIGINTZA ONARPENA.

Formaz obra onartzeko beharrezkoak diren baldintzak:

- Obra bukaerako agiriak entregatzea, aurreko atalean hitzartutakoaren arabera.
- Udaleko zerbitzu teknikoek aldeko txostena edukitzea.

Aipatu baldintzak betetzen badituzte, sustatzaileak, kontratistak, obra zuzendaritzak eta Udalak onarpen formaleko akta sinatuko dute.

19. ERANSKINean onarpen formaleko akten ereduak sartzen dira, udalak sustatzen dituen obretarako eta sustapen pribatuko obretarako.

2. BERME EPEA.

Obren onarpen formalarekin edo hirigintza onarpenarekin berme epea hasten da, eta denbora horretan baimenaren titularrak izan litezkeen obraren gabeziei erantzungo die.

Berme epe hori urtebetekoa izango da sustapen pribatuko obrak direnean, eta udalak sustatzen dituen kontratuan ezarritakoa.

3.- BERME ALDIA AMAITZEA.

Berme epea amaitutakoan eta befi sustatzaileak eskatuta, izan Udala edo izan beste edozein sustatzaile pribatu, berme epea amaitu izanaren akta sinatuko dute.

Aldez aurretik, obra zuzendaritzak eta udaleko zerbitzu teknikoek obrak ikuskatzeko bisita egin beharko dute eta horiei buruzko txosten bana idatzi.

Aldeko txostenak izanez gero, bermearen itzulketaren egokitasuna jasoko du berme aldia amaitu izanaren aktak.

Hala ere, txostenak aldekoak ez badira, antzemandako gabeziak zuzentzeko beharrezkoak diren lanak ezarri beharko dituzte, bai eta lan horiek exekutatzeko aldiak eta haien faktura zuzena dela egiaztatzeko aldiak ere. Denbora horretan guztian, ezingo zaie itzuli bermea.

20. ERANSKINean berme aldia amaitu izanaren akten ereduak sartuko dira, bermea itzultzeko kasuetarako edo bermea ez itzultzeko kasuetarako.

2. MOTako obretan, obraren tamainaren arabera, Udalak salbuetsi egin dezake lehen adierazitako obra onarpen prozedura betetzetik, eta obraren onarpen bakar batez ordeztu, obrak bukatutakoan. Kasu horretan, zuzenketa behar duten aspektuak antzemanaz gero, ofizioz, dagokion prozedura hasiko da. Hori guztia udalak sustatzen dituen obretarako kontratazioari buruz (administrazio publikoetako kontratuen legea) ezarritakoa alde batera utzi gabe.

II. ERANSKINA

ARRASATEN ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ORDENANTZAREN 1GO ALDAKETA PUNTUALA (BEHIN BETIKO ONESPENA)

ZIOAK AZALTZEA.

Udalbatzarrak, 2013ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, behin betiko onartu zuen "Arrasaten araupeko aparkalekuaren udal ordenantza". Ordenantza horrek, hasiera batean, TAO gune bat baino ez zuen zehazten, 1 Gunea (Uribarri-Loramendi), beste gune batzuetako mugak geroago egiteko. Udalaren borondatea zen herriko beste leku batzuetan ere ibilgailuen araupeko aparkalekua ezartzea apurka-apurka.

Ordenantzaren aldaketa honen bidez, gune berri bat mugatuko da, erdialdean, 0 Gunea - 0.1. azpigunea.

0.1 azpiguneak garai batean Ferixalekuko ikastolako jolastokia zen gunea hartzen du, Amaia antzokiaren eta Uarkape frontoiaren arteko gunea. Ez du atxikirik ezein eraikuntzarik, hau da, Udalak ez du egingo egoiliar txartelik azpigune horretarako.

Kontua da baldintzak erraztea, kontsumitzaileak joan ahal izan daitezen erosten bai udal azokara bai erdialdera. Txandakako aparkatze araubidea ezartzen du, gehienez ere 90 minutuko egonaldi batekin, eta ezingo dute berriro aparkatu azpigune berean hiru ordu igaro arte. Ez da tarifarik ordaindu behar ibilgailua aparkatzeagatik.

1º MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LA ORDENANZA MUNICIPAL DE ESTACIONAMIENTO REGULADO EN ARRASATE (APROBACIÓN DEFINITIVA)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 30 de abril de 2013, aprobó definitivamente la "Ordenanza municipal de estacionamiento regulado en Arrasate". Dicha ordenanza definía, en un principio, únicamente una zona OTA, la Zona 1 (Uribarri-Loramendi), dejando la delimitación de otras zonas para más adelante. La voluntad municipal era que paulatinamente se fuera instaurando el estacionamiento regulado de vehículos en otros puntos del Municipio.

A través de la presente modificación de la ordenanza se va a delimitar una nueva zona, en la parte centro, la Zona 0 - subzona 0.1.

La subzona 0.1 está comprendida por el espacio destinado en su día a patio de Ferixalekuko ikastola, entre el Amaia Antzokia y el frontón de Uarkape. La misma no tiene adscrita ninguna edificación, es decir, no se expedirán tarjetas de residentes para dicha subzona.

Se trata de favorecer las condiciones para que los consumidores puedan acudir a hacer la compra tanto a la udal azoka, como a la zona centro. Se establece un régimen de estacionamiento rotatorio, con una estancia máxima de 90 minutos, no pudiendo volver a estacionar en la misma subzona hasta que haya transcurrido un periodo de tres horas. No existirá obligación de pago de tarifa alguna por el estacionamiento del vehículo.

0.1 Azpigunean TAO aplikatzeko egutegia eta

El calendario y horario de aplicación de la

Esp.-kodea: 2014SAPL0009

ordutegia: astelehenetik zapatara arte, 8:00-14:00 eta 16:00-20:00, domeketan, jaiegunetan eta abuztu osoan izan ezik.

Bestalde, aldaketa txiki batzuk egongo dira bai 1.1, 1.2 eta 1.3 azpiguneetako mugetan bai guen horietako eraikin atxikipenetan.

- 16 aparkaleku pasatuko dira 1.1 azpigunetik 1.3 azpigunera.

- 10 aparkaleku pasatuko dira 1.2 azpigunetik 1.3 azpigunera.

- 1.2 azpigunari atxikitzen zaizkio, orain atxikita daudenez gain, eraikuntza hauek: Uriburu kalea, 14, 16, 18 eta Uribarri etorbidea, 2 ac.

Beste gai batzuen artean, ohiko egoiliar txartelak emateko kasuak handituko ditugu, ibilgailu baten jabe diren eta elbarritasun motaren bat duten pertsonentzat, nahiz eta ez eduki gida baimenik.

Azkenik, salaketak deuseztatzeko ezarritako epea ere handitu dugu, eta oraingo 24 ordutik 48 ordura pasatuko dira.

Ordenantza aldaketa honek bi eranskin plano ditu, 1 Gunearen (egindako aldaketekin) eta 0 Gunearen mugak islatzeko.

Idazketa berri batez, artikulua hauek aldatu dira:

4. Artikulua. Mugatutako Guneak eta Azpiguneak

Arrasateko udalerrian Gune eta Azpigune hauek mugatuko dira:

0. Gunea (erdialdea)

Alde zahararen inguruan dago; apurka apurka sistema sartu ahala eratuko da non jarri mugak.

Gune honek, momentuz azpigune bakarra du:

OTA en la subzona 0.1 será de lunes a sábado, de 8:00 a 14:00 horas y de 16:00 a 20:00 horas, exceptuándose los domingos, festivos y todo el mes de agosto.

Por otro lado, se van a efectuar unos pequeños cambios tanto en la delimitación de las subzonas 1.1, 1.2 y 1.3, así como en la adscripción de edificios a dichas zonas:

- Pasan 16 plazas de aparcamiento de la 1.1 a la 1.3.

- Pasan 10 plazas de aparcamiento de la 1.2 a la 1.3.

- Se adscriben a la 1.2, además de las actualmente adscritas, las siguientes edificaciones: Uriburu kalea, 14, 16, 18 y Uribarri etorbidea, 2 ac.

En otro orden de cuestiones, se van a ampliar los supuestos para la concesión de tarjetas de residente convencionales para aquellas personas que tengan algún tipo de minusvalía que sean propietarias de un vehículo, aún cuando no dispongan de carnet de conducir.

Por último, se amplía también el plazo establecido para la anulación de denuncias, pasando de las actuales 24 horas a 48 horas.

La presente modificación de ordenanza contiene dos planos anexos que reflejan la delimitación de la Zona 1 (con las modificaciones efectuadas) y la Zona 0.

